

# AURKIBIDEA

## INDICE

### 10B

I.	SPRI Taldea .....	1
	<i>Grupo SPRI</i>	
-	Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua., S.A..... <i>Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A.</i>	9
-	Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A. .... <i>Centro de Empresas e Innovación de Alava, S.A.</i>	41
-	Teknologi Elkartegia, S.A..... <i>Parque Tecnológico, S.A.</i>	55
-	Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Gestioa, S.A..... <i>Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, S.A.</i>	83
-	Arabako Teknologi Elkartegia, S.A..... <i>Parque Tecnológico de Alava, S.A.</i>	95
-	Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A. .... <i>Parque Tecnológico de San Sebastián, S.A.</i>	119
-	SPRILUR Taldea.....	135
	<i>Grupo SPRILUR</i>	
-	SPRILUR. S.A.....	137
-	Abanto eta Zierbenako Industrialdea, S.A. ....	153
-	Deba Goieneko Industrialdea, S.A.....	165
-	Urola Erdiko Industrialdea, S.A. ....	179
-	Deba Beheko Industrialdea, S.A. ....	191
-	Hernaniko Industrialdea, S.A.....	209
-	Igorreko Industrialdea, S.A.....	223
-	Irungo Industrialdea, S.A. ....	235
-	Aiara Araneko Industrialdea, S.A. ....	249
-	Oarsoaldeko Industrialdea, S.A. ....	261
-	Okamikako Industrialdea, S.A. ....	277
-	Goiherri Beheko Industrialdea, S.A. ....	293
-	Urola Garaiko Industrialdea, S.A.....	305
-	Zarautzko Industrialdea, S.A. ....	317
-	Busturialdeko Industrialdea, S.A.....	329

-	Centro de Empresas de Zamudio, S.A.....	343
-	Elorrioko Industrialdea, S.A. ....	355
-	Zuatzu Parque Empresarial, S.A.....	367
-	Lautadako Industrialdea, S.A. ....	381
-	Orduñako Industrialdea, S.A. ....	395
-	Mallabiako Industria Lurra, S.A.....	407
-	Lanbarren Parke Logistikoa, S.A.....	419
-	Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, S.A. ....	433
-	Aurrekontu Bateratuak. SPRILUR Taldea .....	447
	<i>Presupuestos Consolidados. Grupo SPRILUR</i>	
-	Aurrekontu Bateratuak. SPRI Taldea .....	455
	<i>Presupuestos Consolidados. Grupo SPRI</i>	

2004



I. **SPRI Taldea**  
*Grupo SPRI*



**GRUPO S.P.R.I.****1. SARRERA**

SPRI, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SA Eusko Legebiltzarraren ekainaren 10eko 1981/5 Legeaz sortu zen eta 1981eko irailean eratu zuen Eusko Jaurlaritzak Politika Industriala garatzeko baliabide garrantzitsuenetako gisa. Bere xede nagusia EAeko industriaren sustapena eta birmoldaketa da, lanpostuak mantendu eta sortzeko besteko lehiakortasun, aniztasun eta teknologia maila lor dezan.

Hona hemen Baltzuaren xedeak:

- Industri sustapenari laguntzea: azterketak eginez eta kudeaketa, ekonomia zein teknika alorretako zerbitzuen gaineko aholkularitza nahiz interes industrialeko beste batzuei buruzkoa emanez.
- Enpresa berrien sorrera eta dagoeneko dihardutenen hedapena erraztea, garapen teknologikoari eta esportazioari arreta berezia eginez.
- Enpresen arteko jarduketa erkide eta lankidetzakoak sustatzea, horrek haien lehiakortasuna sendotzen duenean.
- Enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuetan parte hartzen duten alderdien ahaleginen osagarria izatea, betiere haiek bideragarritasun baldintza objektiboak betetzen badituzte.
- Bai prozesu berrien bai produktu industrial eta zerbitzu osagarrien garapen eta ikerketa proiektuak sustatzea.

Bere helburuak lortzeko zerikusia daukan beste edozein.

Gainera, Baltzuak lan egiten duen jarduketa esparru berrian, bere sustapen jarduera Komertzio eta Turismo Arloetara zabaldu du.

Horrez gain, bere helburuak erdiesteko, honako ahalak izango ditu Sozietateak:

- 1.- Enpresei abalak, epe ertain eta luzerako dirulaguntzak eta kredituak ematea, bai eta interes tasa berezikoak ere, Eusko Jaurlaritzak horri buruz ebatzen dituen arauak atxikiz.
- 2.- Interes bereziko enpresen kapital sozialean parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren baimena lortu ondoren eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan.
- 3.- Finantza erakunde publiko zein pribatuetatik maileguak jasotzea.
- 4.- Euskadiko Ogasun Orokorretik eta Autonomia Erkidegoko beste Instituzio zein Erakunde Publikoetatik, bai eta estatuko sektore publiko eta komunitarioko ere, dirulaguntzak eta bermeak jasotzea.

**2. ENTITATEAREN JARDUERA NAGUSIAK****1. INTRODUCCIÓN**

La Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) fue creada por la Ley 5/1981 de 10 de Junio del Parlamento Vasco, y se constituyó el 21 de Septiembre de 1981 como uno de los principales instrumentos a través de los que el Gobierno Vasco desarrolla la Política Industrial en relación, sobre todo, a la promoción y reconversión de la industria vasca a fin de que ésta alcance el suficiente grado de competitividad, diversificación y tecnología, para el mantenimiento y la creación de empleo.

La Sociedad tiene por objeto:

- Contribuir a la promoción industrial mediante la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión, económico, técnico y otros de interés industrial.
- Fomentar la creación de nuevas empresas, así como la expansión de las ya establecidas, prestando particular atención al desarrollo tecnológico y a la exportación.
- Fomentar las actuaciones comunes y de cooperación entre empresas cuando ello conduzca a reforzar su competitividad.
- Apoyar con carácter complementario los esfuerzos de las partes implicadas en los procesos de saneamiento y reconversión de empresas, siempre que reúnan condiciones objetivas de viabilidad.
- Fomentar los proyectos de investigación y desarrollo, tanto de nuevos procesos como en productos industriales y servicios conexos.

Cualesquiera otras que tengan relación con el ejercicio de sus fines.

Además, en el nuevo ámbito de actuación en el que se desenvuelve la Sociedad, extiende su actividad promocional a las Áreas de Comercio y Turismo.

Para el cumplimiento de sus fines, la Sociedad podrá llevar a cabo la siguiente operativa principal:

1. Conceder subvenciones, créditos a medio y largo plazo, incluso en condiciones especiales de tipo de interés, así como avales a empresas de acuerdo con las normas que dicte al respecto el Gobierno Vasco.
2. Participar en el capital social de empresas de particular interés, previa autorización del Gobierno Vasco y en las condiciones que en cada caso se determinen.
3. Recibir préstamos de entidades financieras públicas y privadas.
4. Recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General del País Vasco y de otras Instituciones y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal y comunitario.

**2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD**

INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA, SAre berezko eta oinarritzko helburua, lehen esan bezala, euskal industria sustatu eta eraldatzea da. Aldi berean, bere jarduketaren helburu nagusia, lanpostuak defendatu eta sortzea da.

Bere jardueren artean, Baltzuak partaidetzak ditu beste sozietatetan eta, batez ere, TEKNOLOGI ELKARTEGIEAN, ENPRESA ETA BERRIKUNTZAKO ZENTROETAN ETA SPRILUR, SAn. Azken honetan, INDUSTRIALDEAK PROGRAMAKo sozietateak, INDUSTRIA LURRAko sozietateak eta ENPRESEN ZENTROAK ETA ENPRESA ELKARTEGIAK sartzen dira. Taldearen beste partaidetza batzuk KAPITAL-ARRISKUAREN jardueri dagozkionak dira.

ELKARTEGI TEKNOLOGIKOEN ETA ENPRESA ETA BERRIKUNTZA ZENTROEN ekimena eta industri inbertsioa sustatzea dute helburu, industri pabiloien industrigune bat eraikiz, bere ustiapena kudeatuz eta teknologia aurreratuko zein enpresa ezarri hautatuz.

SPRILUR, SAre helburua Autonomi Erkidegoan lurzorua eta industri eraikinak sustatu eta prestatzea da, zuzenean edo partaidetzen bitartez, Erakunde Urbanistiko Berezi izaera baitu eta Behartutako Desjabetzerako Legearen (1945-12-16) onuraduna baita.

INDUSTRIALDEAK PROGRAMAREN helburu nagusia, inbertsioa sustatu eta lanpostuak sortzea da, industrialdeak eraiki eta, gero, saldu edo alokatzea, erosteko aukera barne. INDUSTRIA LURRA sozietateak industria sustapenerako sortu dira. Industri lurzoru ordenatu eta sailkatuen erreserba bat sortu dute, etorkizunean, inbertitzaileak edota proiektu berezien sustatzaileak esparru horietan ezarri nahi badira, lehenbailehen lanei ekiteko.

ENPRESEN ELKARTEGIAK eta ENPRESEN ZENTROEK industri ekimena eta inbertsioa sustatzea dute helburu, industri eraikinen gune bat eraikiz eta bere ustiapena kudeatuz.

EAEko KAPITAL-ARRISKUAREN KUDEAKETA, EAEn kapital-arriskuaren jardura sustatzeko helburuak sortu zen. Kapital-arrisku hori da enpresa proiektuetan inbertitzeko finantza fluxua lortzea sozietate horien kapital sozialetan partaidetza gutxiengoduna izatearen bitartez.

### 3. 2003ko GAUZAPEN GARRANTZITSUENAK

SPRI TALDEKO jarduketa nagusiak 2003.06.30 arte, oro har, honela sailkatzen dira:

SPRI, SAK beheko jarduketak burutu ditu nagusiki, kudeatzen dituen Programa desberdinen bitartez.

- GAUZATUren Programa desberdinen enpresa proiektu berriak erakartzen aktiboki aritu da, baita HOBEBI Programaren jardueraren kudeaketa ere.
- Hainbat herrialdeko erakunde eta enpresekin harreman lan handia egin du.

El objetivo propio y fundamental de SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN Y RECONVERSIÓN INDUSTRIAL, S.A. tal y como se ha comentado anteriormente, es la promoción y reconversión de la industria vasca y asimismo, su objetivo prioritario de actuación, la defensa y creación de puestos de trabajo.

Formando parte del desarrollo de sus actividades, la Sociedad posee participaciones en otras sociedades y, fundamentalmente, las que se refieren a los PARQUES TECNOLÓGICOS Y CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN y a SPRILUR, S.A., que incluye a las sociedades del PROGRAMA INDUSTRIALDEAK, SOCIEDADES INDUSTRIA LURRA Y CENTROS DE EMPRESAS Y PARQUES EMPRESARIALES. Otras participaciones importantes dentro del Grupo son las relativas a actividades de CAPITAL-RIESGO.

LOS PARQUES TECNOLÓGICOS Y CENTROS DE EMPRESA E INNOVACIÓN (CEI) tienen por objeto promover la iniciativa e inversión industrial mediante la construcción de un complejo de pabellones industriales, gestionando su explotación y seleccionando la implantación de empresas de tecnología avanzada.

El objeto social de SPRILUR, S.A. está dirigido a la promoción y preparación de suelo y edificaciones industriales en la Comunidad Autónoma, bien directamente o bien a través de sus participadas, ostentando el carácter de Entidad Urbanística Especial y la condición de beneficiaria en la Ley de Expropiación Forzosa del 16 de diciembre de 1945.

EL PROGRAMA INDUSTRIALDEAK tiene por objeto principal fomentar la inversión y creación de puestos de trabajo mediante la constitución de diferentes sociedades cuya actividad es la construcción y posterior venta o arrendamiento con opción de compra de polígonos industriales. Las sociedades Industria Lurra han sido creadas para la promoción industrial mediante la generación de una reserva de suelo industrial ordenado y calificado de cara a poder responder con la mayor celeridad posible a futuros inversores, promotores de proyectos singulares, que pretendan ubicarse en su zona de influencia.

EL PARQUE EMPRESARIAL y los CENTROS DE EMPRESAS tiene por objeto promover la iniciativa e inversión industrial mediante la construcción de un complejo de edificios industriales, gestionando su explotación.

GESTIÓN DE CAPITAL-RIESGO DEL PAÍS VASCO, S.A. se constituyó con el objeto de promover la actividad de capital riesgo en Euskadi, entendida ésta como la captación de un flujo financiero destinado a la inversión en proyectos empresariales mediante la participación minoritaria en el capital social de estas sociedades.

### 3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2003

Las principales actuaciones del GRUPO SPRI hasta el 30.06.2003 pueden clasificarse, en términos de parámetros generales, de la siguiente forma:

SPRI, S.A. a través de los diferentes Programas que gestiona, ha llevado a cabo especialmente las siguientes actuaciones:

- Ha actuado de forma activa en la captación de nuevos proyectos empresariales derivados de los distintos Programas GAUZATU, así como en la gestión de la actividad derivada del Programa HOBEBI.
- Ha desarrollado una intensa labor de contactos institucionales y empresariales con organismos y empresas de diversos países.

- KONEKTA ZAITEZ Mikroenpresak eta ENPRESA DIGITALA Programaren kudeaketa garatu du.
- I+G eta BERRIKUNTZA proiektuen ebaluazioari eutsi zaio.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PARKE TEKNOLOGIKOEN SAREARI dagokionez, salmentek ez dute espero bezalako joerarik izan. Hala ere, hainbat bezerorekin harremanetan ari gara eta badirudi, ekitaldia amaitu baino lehen, zehaztutako helburuak lortuko direla.

Nabarmendu beharreko beste puntu bat, berrikuntzaren, teknologia berrien eta enpresa arteko lankidetzaren aldeko apustua da (ikerketaren proiektuen lidergoa, ezagutzaren zabaltze eta transferentziari buruzko jardunaldiak, enpresen hazitegiak, Unibertsitatearekiko elkarlana areagotzea etab.).

SPRILUR, S.A.ren berezko jardueri dagokienez, urbanizazio-lanak egin dira 18 industrialdetan. Ekitaldia ixten denerako, eta sortutako hainbat eragozpen gainditu ondoren, espero dugu hasieran aurreikusitakoaren antzeko burutze-mailara heltzea.

SPRILUR S.A.ren menpeko sozietateek egindako jardueri dagokienez, eraikitako metro karratuen %95 okupatu dira.

03/06/30n, SPRILUR, S.A.k partaidetzadun duen Sozietateen kopurua 27koa izango, 22tan gehiengoduna eta bostan gutxiengoa edukiz.

KAPITAL-ARRISKUAREN jarduera, EZTEN FCR, SUZTAPEN FCR, ELKANO XXI FCR eta INVERSION EN EMPRESAS DIGITALES FCRren bidez burutu da, eta hiruren artean, 8.772 mila euroko 6 inbertsio proiektu onartu dituzte.

#### 4. 2004rako HELBURU OROKORRAK ETA HORIEN ZENBATESPENA

Hemen plantatutako helburuen laburpena, eta orokorrean ematen da, aurreikusi diren sustapenerako aktuzio ildo nagusiak zehaztuz. Planteamendu zehatzagoak, SPRI Taldea osatzen duten sozietate desberdinen Aurrekontuen Memorietan agertzen dira xehetasun handiagoarekin.

##### SPRI, S.A.:

ENPRESA GARAPENAREN arloaren eginkizun nagusiak dira lan aukera berriak sortuko dituzten enpresa proiektuak sustatzea, eta enpresa ezagutzaren kudeaketa eraldatuz ETEen lehiakortasuna handitzea.

NAZIOARTEKOTZE arloa, euskal enpresa nazioartekotzeaz arduratzen da bere kudeaketa arlo guztietan, kasu eginez, batez ere, euskal gizartearentzako lana eta aberastasuna sortzen duten arloei.

Enpresak, herritarrak eta administrazioa, bai erabiltzaile moduan, eta bai zerbitzu eta eduki emaile moduan, informazioaren teknologiak eta telekomunikazioak erabiltzera bultzatzea da INFORMAZIOAREN GIZARTEKO arloaren zereginak.

- Se ha desarrollado la gestión del Programa KONEKTA ZAITEZ Microempresas, así como la iniciativa ENPRESA DIGITALA

- Se ha continuado con la evaluación de proyectos de I+D e INNOVACIÓN.

Con respecto a la RED DE PARQUES TECNOLÓGICOS DEL PAÍS VASCO, las ventas no han tenido el comportamiento esperado, si bien existen conversaciones avanzadas con diversos clientes lo que podrá permitir al cierre del ejercicio alcanzar los objetivos planteados.

Otro punto a destacar es la apuesta clara por la innovación, las nuevas tecnologías y la cooperación empresarial, con actuaciones de diversa índole (liderazgo de proyectos de investigación, organización de jornadas de difusión y transferencia de conocimiento, semilleros de Empresas, intensificación de la colaboración con la Universidad, etc.).

Por lo que respecta a las actuaciones propias de SPRILUR, S.A., durante 2003 se han realizado las obras de urbanización en 18 polígonos, esperándose, que para el cierre del ejercicio, una vez salvados diversos contratiempos surgidos, se pueda alcanzar un grado de realización similar al inicialmente previsto.

Con respecto a las actividades realizadas por las sociedades dependientes de SPRILUR, S.A., presentan unos índices de ocupación en torno al 95% sobre los metros cuadrados edificados.

Al 30/06/03 el número de sociedades participadas por SPRILUR, S.A. asciende a 27 de las que 22 mayoritariamente y 5 minoritariamente.

Por lo que respecta a la actividad de CAPITAL RIESGO, se realiza a través de EZTEN F.C.R., SUZTAPEN, F.C.R., ELKANO XXI, F.C.R. e INVERSIÓN EN EMPRESAS DIGITALES F.C.R., que en su conjunto han aprobado 6 proyectos de inversión por importe de 8.772 miles de euros.

#### 4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL 2004 Y SU CUANTIFICACIÓN

El resumen de objetivos aquí planteado, se realiza de forma genérica, con la concreción de las principales líneas de actuación promocionales previstas, al existir planteamientos específicos con mayor detalle en las Memorias Presupuestarias individuales de las diferentes Sociedades que componen el GRUPO SPRI.

##### SPRI, S.A.:

El área de DESARROLLO EMPRESARIAL tiene como misiones principales el impulso de proyectos empresariales generadores de nuevas oportunidades de empleo y la mejora de la competitividad de las Pymes.

La vertiente de INTERNACIONALIZACIÓN consiste en promover la internacionalización de la empresa vasca en todas sus áreas de gestión, con especial incidencia en aquellas que redunden en una mejora de los objetivos generales de creación de empleo y riqueza para la sociedad vasca.

El área de SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN tiene como misión impulsar la utilización de las Tecnologías de la Información y las Telecomunicaciones por parte de las Empresas, Ciudadanos y Administración en su doble vertiente de usuarios y proveedores de contenidos.

GARAPEN TEKNOLOGIKOAREN esparrua, jarduketarako hiru arlo nagusiren inguruan egituratuko da: "OINARRIZKO IKERKETA EZ ORIENTATUA", "EZINBESTEKO PROGRAMAK" eta "IKERKETA ESTRATEGIKOA".

## ELKARTEGI TEKNOLOGIKOAK:

Elkartegiek bete beharreko tokia da berrikuntzaren abangoardia izatea teknologia eta ezagutza transferituz. Hartara, enpresa teknologikoki aurreratuen garapenean eta ezarpenean ezinbesteko erreferente izaten jarraitu ahal izango dute.

- Pixkanaka-pixkanaka, elkartegien jardueraren ahalegina eta baliabideak, honakoetara zuzentzea: teknologia eta ezagutzaren transferentzia eta berrikuntzaren kultura sustatzera, oinarri teknologikoko proiektu berriak bultzatzera, jarduera teknologiko berriak erakarri, dibertsifikatu, garatu eta sustatzeko beharrezko tresna berriak abian jartzera, elkartegietako eragile desberdinen arteko lankidetzaren areagotzera eta Unibertsitate zein Zentro Teknologikoen lankidetzaren bultzatzera.

- Jardunean dauden elkartegiak ahalik eta gehien aprobetxatzearen irizpidearen arabera ekitea eta, aldi berean, Araba zein Donostiaren kasuan, elkartegien hazkunde eta garapen prozesuekin jarraitzea.

## SPRILUR, S.A.:

Hainbat jarduera garatzen ditu, esaterako, zenbait lurren erreserba estrategikoak egitea edo pabilioi industrialak eraikitzea, bai eta garapen plan berriak ezartzea edo berreskuratze eta birgaitze arloetan jardutea. Helburu horiek betetzeko, zuzenean jardungo du edota beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin elkarlanean.

SPRILUR, S.A.ren barruan, programa bi bereizten dira argi eta garbi; batetik, Industrialdeak eta Industria-Lurra programako sozietateetan duen partaidetza: arlo honen barruan, industrialde txikiak sustatzen eta gestionatzen dira eta gero laga egiten dira hainbat formula bidez, esaterako, alokairuan utz daitezke erosteko aukerarekin edo zuzenean saltzen zaizkie ETEei. Bestetik, lurzoru industrialean egiten dituen jarduerak daude, lurzoru estrategikoa erositik beronen garapenerako edo degradatutako industri guneak birgaitu eta eraldatzeko.

## KAPITAL ARRISKUA:

KAPITAL-ARRISKUAK honako helburuak ditu asmoan:

- FONDOEN KAPTAZIOA

Gaurko Fondoaren partaideek ekarpen berriak fondoaren ekarriko dituzte proiektu berrien inbertitzeko behar denean.

- INBERTSIOAK

Kapital arriskuko fondoaren espezializazioa garatu eta sendotu, ekitaldian zehar burutuko diren partaidetza-harpidetze berrien bitartez.

- DESINBERTSIOAK

El campo de DESARROLLO TECNOLÓGICO, se estructurará a través de TRES grandes áreas de actuación y que son "INVESTIGACIÓN BÁSICA NO ORIENTADA", "PROGRAMAS CLAVE" e "INVESTIGACIÓN ESTRATÉGICA".

## PARQUES TECNOLÓGICOS:

El posicionamiento de los Parques pasa por actuar en la vanguardia de la innovación, mediante la transferencia de tecnología y conocimiento, para seguir siendo referente obligado en la implantación y el desarrollo de Empresas tecnológicamente avanzadas.

- Para ello, especialmente, se concentrarán esfuerzos y recursos en orientar paulatinamente la actividad de los Parques hacia el fomento de la transferencia de tecnología y conocimiento y la difusión de la cultura de la innovación, potenciar la promoción de nuevos proyectos de base tecnológica, la puesta en marcha de nuevos instrumentos necesarios para la atracción, diversificación, desarrollo y promoción de nuevas actividades tecnológicas, la intensificación de la cooperación entre los distintos agentes de los Parques y potenciar actuaciones de colaboración con Universidades y Centros Tecnológicos.

- Además se actuará en base al criterio de máximo aprovechamiento de los activos y paralelamente, en los casos de Alava y San Sebastian, proseguir con el proceso de crecimiento y desarrollo de los Parques.

## SPRILUR, S.A.:

Sus actuaciones abarcarán desde las reservas Estratégicas de Terreno, hasta la edificación de pabellones industriales, pasando por sus etapas intermedias, tanto en nuevos desarrollos como en áreas de recuperación o rehabilitación. Para el cumplimiento de sus objetivos, actuará directamente y/o en colaboración con otras Instituciones Públicas y con el sector privado.

Dentro de SPRILUR, S.A. se diferencian claramente dos programas: la participación en Sociedades del Programa Industrialdeak e Industria-Lurra, el cual consiste en la promoción y gestión de pequeños polígonos industriales y su cesión mediante un abanico amplio de posibilidades que van desde el arrendamiento con opción de compra, hasta la venta al contado a las PYMES, abarcando todo tipo de sectores de actividad económica de la Comunidad; y por otro, la actividad de suelo industrial en la compra de suelo estratégico para su posterior desarrollo o bien en la rehabilitación y reconversión de zonas industriales degradadas.

## CAPITAL RIESGO:

CAPITAL RIESGO, se plantea como objetivos, los siguientes:

- CAPTACIÓN DE FONDOS

Solicitar nuevas aportaciones a los partícipes actuales de los fondos a medida que se requieran para su inversión en proyectos determinados.

- INVERSIONES

Desarrollar y consolidar la especialización de los fondos de capital riesgo, a través de las nuevas tomas de participación, que se lleven a cabo durante el ejercicio.

- DESINVERSIONES



Helburua, batezbeste 6/7 urtez inbertsioak mantentzea da.

El objetivo es mantener las inversiones una media de 6/7 años.

## 5. GASTU ETA INBERTSIOAK. SAILKAPENA LURRALDEKA

SPRI TALDEA, azaldu den bezala, oso izaera inbertitzailekoa da. Horretarako oinarria, batez ere, ELKARTEGI TEKNOLOGIKO, INDUSTRIALDEA ETA INDUSTRIA LURRAtik eratorritako jarduketak dira.

Oro har, higiezin materialetan egindako inbertsioen banaketa honakoa da:

- GIPUZKOA:%54
- BIZKAIA: %38
- ARABA: %8

## 6. 2004 URTERAKO AURREKONTUA

SPRI TALDEA osatzen duten sozietate ugariak, 30etik gora, baliabideen bolumen garrantzitsua kudeatzen dute, kapitalean zein ustiapenean. Baliabideen bolumen horren xehetasunak aurrekontu bateratuan erakusten dira eta, hura hobeto azaldua izateko, aurrekontu indibidualen ñabardura desberdinak hartu behar dira kontuan.

## 5. GASTOS E INVERSIONES. CLASIFICACIÓN TERRITORIAL

El GRUPO SPRI tiene un marcado carácter inversor, tal y como se ha explicado, sustentado fundamentalmente por las actuaciones que se derivan de los PARQUES TECNOLÓGICOS, INDUSTRIALDEAK e INDUSTRIA LURRA.

En términos generales, se puede decir que el reparto de las inversiones en inmovilizado material, es de la siguiente forma:

- GIPUZKOA: 54%
- BIZKAIA: 38%
- ARABA: 8%

## 6. PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2004

El importante número de Sociedades que componen el GRUPO SPRI, más de 30, gestiona un importante volumen de recursos, tanto en la vertiente de capital como de explotación, cuyo detalle se muestra en el presupuesto consolidado y que, para una mejor explicación, deben de ser tenidas en cuenta las diferentes matizaciones que se exponen en cada uno de los presupuestos individuales.



2004



**Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.**  
*Sociedad para la Promoción y Reversión Industrial, S.A.*



**S.P.R.I., S.A.****1. SARRERA**

SPRI, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SA Eusko Legebiltzarraren ekainaren 10eko 5/1981 Legeaz sortu zen eta 1981eko irailaren 21ean eratu zen Eusko Jaurilaritzak Politika Industriala garatzeko baliabide garrantzitsuenetako gisa. Bere xede nagusia EAEko industriaren sustapena eta birmoldaketa da, lanpostuak mantendu eta sortzeko besteko lehiakortasun, aniztasun eta teknologia maila lor dezan.

Hona hemen Baltzuaren xedeak:

- Industri sustapenari laguntzea: azterketak eginez eta kudeaketa, ekonomia zein teknika alorretako zerbitzuen gaineko aholkularitza nahiz interes industrialeko beste batzuei buruzkoa emanez.
- Enpresa berrien sorrera eta dagoeneko dihardutenen hedapena erraztea, garapen teknologikoari eta esportazioari arreta berezia eginez.
- Enpresen arteko jarduera komun eta lankidetzakoak sustatzea, horrek haien lehiakortasuna handitzea dakarrenean.
- Enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuetan parte hartzen duten alderdien ahaleginen osagarria izatea, betiere haiek bideragarritasun baldintza objektiboak betetzen badituzte.
- Bai prozesu berrien bai produktu industrial eta zerbitzu osagarrien garapen eta ikerketa proiektuak sustatzea.
- Bere helburuak lortzearekin zerikusia daukan beste edozein.

Gainera, Baltzuak lan egiten duen jarduera esparru berrian, bere sustapen jarduera Komertzio eta Turismo Arloetara zabaldu du.

Horrez gain, bere helburuak erdiesteko, honako ahalak izango ditu Sozietateak:

1. Enpresei dirulaguntzak, epe ertain eta luzerako kredituak, bai eta interes tasa berezikoak ere, eta abalak ematea Eusko Jaurilaritzak horri buruz ebazten dituen arauak atxikiz.
2. Interes bereziko enpresen kapital sozialean parte hartzea, Eusko Jaurilaritzaren baimena lortu ondoren eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan.
3. Finantza erakunde publiko zein pribatuetatik maileguak jasotzea.
4. Euskadiko Ogasun Orokorretik eta Autonomia Erkidegoko beste Instituzio zein Erakunde Publikoetatik, bai eta estatuko sektore publiko eta komunitarioko ere, dirulaguntzak eta bermeak jasotzea.

SPRIk, 2003ko ekainaren 30ean, 130.195.200 euroko kapital soziala zeukan. Horko %96,82 Eusko Jaurilaritzak harpidetutako ekarpenak dira, eta gainerakoa, %3,18, Lurralde Historikoetako hiru Aurrezki Kutxa Konfederatuek harpidetutakoak.

**1. INTRODUCCIÓN**

La Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) fue creada por la Ley 5/1981 de 10 de Junio del Parlamento Vasco, y se constituyó el 21 de Septiembre de 1981 como uno de los principales instrumentos a través de los que el Gobierno Vasco desarrolla la Política Industrial en relación, sobre todo, a la promoción y reconversión de la industria vasca a fin de que ésta alcance el suficiente grado de competitividad, diversificación y tecnología, para el mantenimiento y la creación de empleo.

La Sociedad tiene por objeto:

- Contribuir a la promoción industrial mediante la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión, económico, técnico y otros de interés industrial.
- Fomentar la creación de nuevas empresas, así como la expansión de las ya establecidas, prestando particular atención al desarrollo tecnológico y a la exportación.
- Fomentar las actuaciones comunes y de cooperación entre empresas cuando ello conduzca a reforzar su competitividad.
- Apoyar con carácter complementario los esfuerzos de las partes implicadas en los procesos de saneamiento y reconversión de empresas, siempre que reúnan condiciones objetivas de viabilidad.
- Fomentar los proyectos de investigación y desarrollo, tanto de nuevos procesos como en productos industriales y servicios conexos.
- Cualesquiera otras que tengan relación con el ejercicio de sus fines.

Además, en el nuevo ámbito de actuación en el que se desenvuelve, la Sociedad extiende su actividad promocional a las Áreas de Comercio y Turismo.

Para el cumplimiento de sus fines, la Sociedad podrá llevar a cabo la siguiente operativa principal:

1. Conceder subvenciones, créditos a medio y largo plazo, incluso en condiciones especiales de tipo de interés, así como avales a empresas de acuerdo con las normas que dicte al respecto el Gobierno Vasco.
2. Participar en el capital social de empresas de particular interés, previa autorización del Gobierno Vasco y en las condiciones que en cada caso se determinen.
3. Recibir préstamos de entidades financieras públicas y privadas.
4. Recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General del País Vasco y de otras Instituciones y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal y comunitario.

La SPRI cuenta, al 30 de Junio de 2003, con 130.195.200 euros de capital social, del que el 96,82% corresponde a las aportaciones suscritas por el Gobierno Vasco y el resto, 3,18%, a las tres Cajas de Ahorros Confederadas de los Territorios Históricos.

## 2. ENTITATEAREN JARDUERA NAGUSIAK

Baltzuren jarduerak bat datoz bere egungo antolakuntza egituraren eginkizun nagusiekin. Hona hemen eginkizun horiek:

### ENPRESA GARAPENAREN ARLOA

ENPRESA GARAPENAREN ARLOaren zeregin nagusiak dira enplegu aukera berriak sortuko dituzten enpresa-proiektuak bultzatzea eta ETEen lehiakortasuna hobetzea.

Industrian, merkataritzan eta turismoan, hiru sektore ekonomiko horietan egiten ditu jarduerak, beti ere bere lana hiru zutabe nagusitan biltzen saiatuz:

- BEZEROAK ETA GARAPENA
- GARAPEN BERRIAK
- PROGRAMEN KUDEAKETA

### NAZIOARTEKOTZE ARLOA

Nazioarteko merkatu berrietan sartu diren euskal enpresen enpresa proiektuak sustatzea da NAZIOARTEKOTZE ARLOaren jardura nagusia. Arlo honek batez ere atzerrian egiten du enpresa ekimen berriak sustatzeko lana. Arlo horren lan nagusia da enpresa-ekimen guztiak sustatzea eta bultzatzea, batez ere kanpoan. Elkarlanean aritzen da Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin.

Euskal enpresak nazioartekotzea da bere zeregin nagusia, eta enpresen sarean lana eta aberastasuna sortzeko ahalegin bereziak egiten dituzten enpresei ematen die lehentasuna.

Horrekin batera, eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ildoekin bat etorriz, atzerritarrek EAEn inbertsio proiektuak egiteko saiakerak burutu eta sustatzen ditu.

### INFORMAZIOAREN GIZARTEKO ARLOA

Enpresak, herritarrek eta administrazioa, bai erabiltzaile moduan, eta bai zerbitzu eta eduki emaile moduan, informazioaren teknologiak eta komunikazioak erabiltzera bultzatzea da INFORMAZIOAREN GIZARTEKO ARLOaren zeregina.

Eusko Jaurlaritzak zentzu horretan hainbat jardura egin ditu "Euskadi Informazioaren Gizartean" ekimenaren bidez.

Helburuak lortzeko, SPRI, SA hainbat jardura programa kudeatu eta diseinatzeko ari da: ENPRESA DIGITALA, INTERNETERAKO SARBIDE ERRAZA, HOBEBE DIGITALA, IT TXARTELA, KZ MIKROENPRESAK, KZ LANKIDETZA eta WIFI, besteak beste.

## 2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

Las actividades de la Sociedad, en correspondencia con su estructura organizativa actual, las podemos resumir en las siguientes funciones principales:

### ÁREA DE DESARROLLO EMPRESARIAL

El ÁREA DE DESARROLLO EMPRESARIAL tiene como misiones principales el impulso de proyectos empresariales generadores de nuevas oportunidades de empleo y la mejora de la competitividad de las Pymes.

Sus actuaciones van dirigidas a los sectores económicos de Industria, Comercio y Turismo, englobando dichas actuaciones en un solo Área que concentra su labor en tres epígrafes:

- CLIENTES Y DESARROLLO
- NUEVOS DESARROLLOS
- GESTIÓN DE PROGRAMAS.

### ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN

El ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN tiene como actividad principal el impulso de proyectos empresariales de las empresas vascas con apertura a nuevos mercados internacionales. Este Área centra su labor promotora e impulsora de nuevas iniciativas empresariales básicamente en el exterior, en coordinación con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Su misión básica es la internacionalización de las empresas vascas, con especial incidencia en aquellas que redunden en una mejora de los objetivos generales de creación de empleo y riqueza para el tejido empresarial.

Se realiza, asimismo, de acuerdo a las directrices emanadas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, la atracción e impulso de la presencia de proyectos de inversión extranjera en la CAPV.

### ÁREA DE SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

El ÁREA DE SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN tiene como misión impulsar la utilización de las Tecnologías de la Información y las Comunicaciones por parte de las Empresas, Ciudadanos y Administración en su doble vertiente de usuarios y proveedores de servicios y contenidos.

Esta misión está reflejada en la iniciativa del Gobierno Vasco, que ha promovido una serie de actuaciones en el marco de lo que se ha venido a denominar "Euskadi en la Sociedad de la Información".

Para cumplir estos objetivos, SPRI, S.A. está gestionando y diseñando programas de actuación tales como: ENPRESA DIGITALA, INTERNET ACCESO FACIL, HOBEBE DIGITALA, IT TXARTELA, KZ MIKROENPRESAK, KZ LANKIDETZA y WIFI, entre otros.

Bestalde, Informazioaren Gizarteko Arloa SPRItik kudeatzen diren prozesu eta programak digitalizatzen laguntzen ari da bere Informatika Zerbitzuaren bidez. Horrela, enpresei eta jendeari eskaintzen zaien zerbitzua hobetzen ari da eta gero eta eduki eta zerbitzu gehiagoz hornitzen ari dira SPRIk administratutako web orriak.

### **TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZAKO UNITATE ESTRATEGIKOAREN (TEUE)**

Eusko Jaurlaritzako zientzia, teknologia eta berrikuntza politikan oinarritzen da TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZAKO UNITATE ESTRATEGIKOAREN jarduera-esparrua, laurtekoka onesten dituen plangintzetan ikus daiteke politika hori zertan datzan.

2001-2004ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana da lau urte horietan egin beharreko jardueren erreferentzia. Teknologia eta Ezagutzako Unitate Estrategikoak plan hori aurrera eramaten lagundu behar du, bere kudeaketa zuzen (baliabideen kudeaketa) eta eraginkorraz (helburuak lortzea esan nahi dugu eraginkorra diogunean) arduratuz, horrela lortuko baitugu zientzia eta teknologia adetiki gurea herrialde berritzailea izatea.

### **KOMUNIKAZIO ETA MARKETINA ARLOA**

Komunikazio eta Marketinaren helburua da Baltzuak egiten dituen jarduera guztietan barne eta kanpo komunikazioa koordinatzea, eta SPRI, SAREN irudia sustatzea EAEn nahiz EAetik kanpora.

Komunikazio eta Marketinaren eginkizuna lau esparrutan banatzen da: BARNE ESPARRUA, SPRI TALDEAREN KOORDINAZIOA, EUSKO JAURLARITZAREKIKO KOORDINAZIOA ETA KANPO ESPARRUA.

Baita ere, nazioarteko turismo azoketan parte hartzen eta gure turismoa sustatzeko ekintzak antolatzea, Turismo Sailordetzarekin elkarlanean.

### **IDAZKARITZA NAGUSIA**

Zuzendaritza Nagusiari eta Baltzuaren nahiz bertako partaide diren enpresen gobernu organoei laguntzeko tresna da IDAZKARITZA NAGUSIA; baita hainbat arlo operatibori laguntzekoa ere. Aipatzekoa da lekuan lekuko administrazio kontseilu nahiz batzar nagusietan egiten duen idazkaritza lana, eta baita erakundearen barruko batzordeetan egiten duena ere (Zuzendaritzan, Kalitatean, Laneko Segurtasuna eta Osasunean, eta SPRI Taldearen Koordinazioa Kalitatea eta Giza Baliabideetan). Egoki irizten denean, beste instituzioekin harremanak izatea eta ordezkari lanak egitea ere agintzen zaio, eta zeregin horiek ere ez ditugu ahaztu behar.

Giza baliabideak, lege aholkularitza, ikerketa zerbitzua, kalitatea eta zerbitzu orokorrak zuzendu eta koordinatzeaz ere arduratzen da.

### **ADMINISTRAZIO ETA FINANTZA ARLOA**

Arlo honen helburua da SPRI, SAREN arloak eta sailak, eta Taldeko sozietateak ekonomia eta finantza esparruko euskarrietz eta estalduraz hornitzea, Aurrekontu Erregimenari buruzko Lege Orokorraren eta Aurrekontuei buruzko Urteroko Legeen babespean beraien eraginkortasuna areagotzeko.

Así mismo, el Área de Sociedad de la Información, a través de su Servicio de Informática, está contribuyendo a digitalizar los diferentes procesos y programas gestionados desde SPRI, contribuyendo a mejorar el servicio que se ofrece a las empresas y a las personas y dotando cada vez de más contenidos y servicios a las páginas web administradas por SPRI.

### **UNIDAD ESTRATÉGICA DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN (UETI)**

La UNIDAD ESTRATÉGICA DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN (UETI) basa su campo de actuación en la Política en materia de Ciencia, Tecnología e Innovación del Gobierno Vasco, la cual queda descrita en los sucesivos planes cuatrienales.

El Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2001-2004 marca el referente, durante sus cuatro años, de las actuaciones de este Área. A dicho Plan, la Unidad Estratégica de Tecnología e Innovación debe contribuir gestionándolo con eficiencia (gestión de los recursos) y eficacia (consecución de los objetivos), para conseguir un País Innovador, Científica y Tecnológicamente avanzado.

### **ÁREA DE COMUNICACIÓN Y MARKETING**

El ÁREA DE COMUNICACIÓN Y MARKETING tiene como objetivo coordinar la comunicación interna y externa de todas las actuaciones que lleva a cabo la Sociedad, además de promocionar la imagen de SPRI, S.A., tanto en la CAPV, como fuera de la misma.

La labor de Comunicación y Marketing se engloba en cuatro ámbitos: INTERNO, COORDINACIÓN GRUPO SPRI, COORDINACIÓN CON EL GOBIERNO VASCO Y ÁMBITO EXTERNO.

Asímismo, participa en ferias de turismo del ámbito internacional y organizar acciones propias de promoción turística, en colaboración con la Viceconsejería de Turismo.

### **SECRETARÍA GENERAL**

La SECRETARÍA GENERAL es un instrumento de apoyo a la Dirección General y a los órganos de gobierno de la Sociedad y de las empresas participadas, así como de las diferentes Áreas Operativas. Destacan las funciones de Secretaría de los respectivos Consejos de Administración y Juntas Generales, así como en los Comités internos de la organización (Dirección, Calidad, Seguridad y Salud Laboral y Coordinación del Grupo SPRI en Calidad y Recursos Humanos) y las tareas de relaciones y representación institucional que, en cada caso, se considere conveniente asignar.

También, dirige y coordina las funciones y servicios relativos a recursos humanos, asesoría jurídica, servicio de estudios, calidad y servicios generales.

### **ÁREA DE ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS**

La misión del ÁREA DE ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS es la de proveer soporte y cobertura Económico-Financiera a las Áreas de SPRI, S.A., así como a las Sociedades del Grupo, facilitando la operatividad de los mismos en el marco de la Ley General de Régimen Presupuestario y de las Leyes Anuales de Presupuestos.

## ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ARLOA

ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ARLOAN kokatzen dira Zuzendaritza Nagusiari dagozkion funtzioak, eta baita Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekiko, taldeko sozietateekiko nahiz bultzatzen eta garatzen ari diren proiektu estrategikoeikiko harremana.

Informazioaren Gizarteari dagokionez, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan, Informazio Gizarteko Euskadi Planeko Idazkaritza Nagusiko lanak egiten ditu, Gobernuaren hainbat sailekiko hartu-emanak koordinatuz eta Planaren garapena bultzatzeko jarduera espezifikoa eginez.

Era berean, Arlo honen lana ere bada Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta SPRIren arteko koordinazioak eta gizartearen hainbat arlotan eragina duten merkataritza eta turismoko jarduera espezifikoen koordinazioak arduratzea.

### 3. 2003ko GAUZAPEN GARRANTZITSUENAK

#### ENPRESA GARAPENAREN ARLOA

Enpresa Garapenaren Arloa osatzen duten hiru azpiarloetan aktiboki jokatu da 2003ko ekainaren 30era arte:

Bezero eta Garapenaren Arloak 300 bisita egin ditu enpresetara. Bisita horietan, alde batetik, lehendik dauden programen jarraipena egin da eta, bestetik, deialdi berriei buruzko informazio gehiago zabaldu da. Enpresei deialdi horietan parte hartzeko gonbita egin zaie eta erraztu eta azkartu egin dira laguntza horiek lortzeko tramiteak. Gainera, Bezeroarentzako Laguntza Zerbitzuaren bitartez, 1.116 kontsulta jaso dira; horietatik, %50 enpresak izan dira eta gainerakoa herritarrek.

Europako Batasunak EURBEST programa onetsi dio Garapen Berrien Atalari, Interreg III Ekimenaren barruan. SPRI sozietateak lidergoa du ekimen horretan eta bertan biltzen dira Europan punta-puntakoak diren zortzi garapen-agentzia. Proiektua agentzien arteko elkartrukean datza, hau da, gizon-emakume ekipoek euren homologoak bisitatuko dituzte beste herrialde batzuetan eta bertan "in situ" daudela praktikan jarriko dute kudeaketa lanak ikasteko eta hobetzeko programa bat.

Programen Kudeaketaren jarduera da indarrean dauden eta SPRI sozietateak kudeatzen dituen programak berraztertzea eta analizatzea. Horren kudeaketa SPRI sozietatearen ardura da.

Gauzatu Industria: Eskabideak aurkezteko epea uztailean bukatuko da eta 03.06.30rako zazpi proiektu aurkeztu dira.

Gauzatu Kanpo Ezarpenak: Epea bukatuta 17 proiektu jaso dira, eta zazpi zeuden aurreikusita.

Gauzatu Turismo: 03.06.30rako ez da agindua plazaratu.

Proiektu Estrategikoak: Bi proiektu lantzen ari dira. Kopuru hori bat dator gaur egungo aurreikuspenekin.

Hobeki Digitala: 190 proiektu tramitatu dira. Urteko bigarren seihilekoan aurreikusitako mailara helduko delakoan gaude.

## ÁREA DE DIRECCIÓN GENERAL

En el ÁREA DE DIRECCION GENERAL se encuadran las funciones inherentes a la Dirección General, así como la interrelación con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, las Sociedades del Grupo y proyectos estratégicos en fase de lanzamiento y desarrollo.

En relación a la Sociedad de la Información, y en colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, realiza funciones de Secretaría General del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, coordinando las relaciones con los distintos Departamentos del Gobierno y realizando acciones específicas que favorezcan su desarrollo.

Asimismo, es también tarea de este Área la coordinación entre el Departamento de Industria, Comercio y Turismo y SPRI de las actividades específicas de comercio y turismo que afecten a las diferentes Áreas de la Sociedad.

### 3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2003

#### ÁREA DE DESARROLLO EMPRESARIAL

Al 30 de junio de 2003, se ha actuado de forma activa en las tres subáreas que integran el Área de Desarrollo Empresarial:

Cientes y Desarrollo ha procedido a realizar un total de 300 visitas a empresas, tanto para tratar sobre seguimiento de programas ya existentes como ampliando información de las nuevas convocatorias, animando a las empresas a tomar parte en ellas, facilitando y agilizando todos los procesos de tramitación para su acceso. Además y a través del Servicio de Atención al Cliente se han atendido en total 1.116 consultas, de las cuales el 50% correspondían a empresas y el resto a personas particulares.

Por parte de Nuevos Desarrollos se ha conseguido la aprobación por parte de la Unión Europea del Programa EURBEST dentro del marco Interreg III, en el que SPRI asume el papel de liderazgo aglutinando en torno a dicho Programa a ocho agencias de desarrollo punteras a nivel europeo. El proyecto consiste en un intercambio entre agencias en base a equipos humanos que visitarán a sus homólogos en otros países y que mediante estancias "in situ" pondrán en práctica un programa de aprendizaje y mejora de la gestión.

La Gestión de Programas centra su actividad en la revisión y análisis de los programas en vigor y cuya gestión está encomendada a SPRI:

Gauzatu Industria: El plazo de presentación de solicitudes termina el mes de julio y al 30.06.03 se han presentado un total de siete proyectos.

Gauzatu Implantaciones Exteriores: Finalizado el plazo se han recibido un total de 17 proyectos frente a los 7 previstos.

Gauzatu Turismo: Al 30.06.03 aún no se ha publicado la orden correspondiente.

Proyectos Estratégicos: Se está trabajando sobre dos proyectos, cifra que coincide con las previsiones a la fecha.

Hobeki Digitala: Se han tramitado un total de 190 proyectos. Se espera recuperar el nivel previsto a lo largo del segundo semestre del año.



Aurreko urteetako proiektuei dagokienez, 575 proiektu daude indarrean.

### NAZIOARTEKOTZE ARLOA

2003ko ekainaren 30era arte egin diren jardura nagusiak ditugu ondokoak:

2003ko urtean lan handia egin da enpresa zein erakunde mailako harremanak estutzeko Euskal Autonomi Erkidegoko zein atzerriko enpresekin, merkataritza eta ekoizpen arloko elkarlan akordioak lortzeko. SPRI sozietateak zerbitzuak eskaintzen dizkie euskal enpresei eta bere kanpoko sare zabala erabiltzen du; horrela, hiru kontinentetan dauden eskari handiko herrialdetara heltzen da: Asia, Amerika eta Europa.

2003ko urtea urte gogorra da kanpoko merkataritzari dagokionez, eta arrazoiak hauek dira: Irakeko gerra, hauteskundeak eta aldaketa politikoak Hego Amerikako hainbat herrialdetan, SARS gaixotasuna Asian eta punta-puntako herrialde batzuen ahulezia ekonomikoa. Euroa indartsu egotea kaltegarria da Europako Batasunetik kanpoko herrialdeetara esportatzen diren produktuen lehiakortasunerako.

Gauzak horrela, hauxe izan da Nazioartekotze Arloaren jardura, 2003ko ekainera arte: euskal enpresak nazioartekotzeko 59 proiektu bultzatu dira (58 zeuden aurreikusita), beraz urteko helburuen lorpidean gaude.

Era berean, nazioartekotze jarduerak promozionatzeko lana indartu egin da eta 462 promozio ekintza bultzatu dira: atzerriko bisita instituzionalei arreta egin, bisitak SPRI-ko kanpoko eragileei, bisitak euskal enpresei jatorrian edo helburuan, agerpenak komunikabideetan jatorrian edo helburuan, sektorekako azterketak helburuan, helburuko merkatuen sektorekako jardunaldiak eta horrez gain iaz egindako guztia.

Aipatzekoa da, lehengo atalean adierazi den bezala, 17 proiektu Gauzatu Kanpo Ezarpenak izan direla.

### INFORMAZIOAREN GIZARTEKO ARLOA

Lehen aipatutako jarduteko ildoei jarraituz, 2003ko ekainaren 30era arte egindako jardura hauek azpimarra ditzakegu:

KONEKTA ZAITEZ MIKROENPRESAK Programan 2.997 eskaera jaso dira, beraz, urteko helburua erraz beteko dugulakoan gaude.

KZ LANKIDETZA Programak 23 eskera jaso ditu tarte honetan eta aurreikuspenak gainditu egin dira.

ENPRESA DIGITALA ekimenak enpresetan informazioaren teknologiak erabiltzearekin zerikusia duten gaiei buruzko 48 hedapen-jardunaldi, ikastaro eta seminario antolatatu ditu eta 1.478 partaide izan dira horietan.

Pertsonen informazioaren teknologietan (internet, testu prozesadoreak, sistema eragileak, etab.) dituzten oinarriko ezagupenak egiaztatzen dituen IT TXARTELA programaren barruan 2.281 pertsonen eman dute izena eta horietatik 1.119k lortu dute ziurtagiria.

Respecto al seguimiento de proyectos de años anteriores y que siguen vigentes, el volumen es de 575 proyectos aún en vigor.

### ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN

Al 30 de Junio 2003, se pueden considerar las siguientes realizaciones principales:

En el año 2003 se ha desarrollado una intensa labor de contactos empresariales e institucionales con organismos y empresas de diversos países, tanto en el País Vasco como en el extranjero, para la labor de captación de acuerdos de colaboración entre empresas vascas y extranjeras en los ámbitos comerciales y/o productivos. SPRI actúa a través de la prestación de servicios a la empresa vasca, utilizando su extensa red externa que abarca países de amplia demanda ubicados en 3 continentes: Asia, América y Europa.

El año 2003 está siendo un año difícil en el comercio exterior debido a varios factores: guerra de Irak, elecciones y cambios políticos en varios países Sudamericanos, SARS en Asia y debilidad económica de varios países punteros. La fortaleza del euro afecta a la competitividad de nuestros productos a exportar a países externos a la Unión Europea.

En este panorama, las acciones del Área, a Junio del año 2003, han consistido en el lanzamiento de 59 proyectos de Internacionalización de empresas vascas, frente a los 58 proyectos previstos, lo que nos lleva en el camino de cumplir los objetivos anuales.

Asimismo, se han redoblado esfuerzos en labores de promoción de las acciones de internacionalización, realizando 462 acciones de promoción encuadradas en: atención a visitas institucionales extranjeras, visitas de agentes exteriores de SPRI, visitas a empresas vascas en origen o en destino, aparición en medios de comunicación en origen o en destino, estudios sectoriales en destino, jornadas sectoriales de mercados de destino, etc., por encima de lo realizado en el año anterior.

Es de reseñar, tal y como se indica en el apartado anterior, la captación de 17 proyectos Gauzatu Implantaciones Exteriores.

### ÁREA DE SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

Al 30 de junio de 2003 y siguiendo las líneas de actuación mencionadas anteriormente, se pueden destacar las siguientes actuaciones:

Dentro del Programa KONEKTA ZAITEZ MIKROENPRESAK se han recibido 2.997 solicitudes, por lo que se espera cumplir holgadamente el objetivo anual.

El Programa KZ LANKIDETZA ha recibido 23 solicitudes en este período, superando las estimaciones inicialmente previstas.

Dentro de la Iniciativa ENPRESA DIGITALA se han organizado 48 jornadas de difusión, cursos y seminarios relacionados con la utilización de las Tecnologías de la Información en las empresas, en los que han participado 1.478 personas.

Dentro del Programa IT TXARTELA, que acredita los conocimientos de las personas en competencias básicas en Tecnologías de la Información (Internet, Procesadores de Textos, Sistemas Operativos, etc.), se han inscrito un total de 2.281 personas, habiendo obtenido el Certificado 1.119 personas.

WIFI programaren lehenengo fasea hasi da. Programa horren xedea da kaberik gabeko teknologiak bultzatzea ingurune zehatz batzuetan Internetera konektatzeko. Denbora tarte honetan 10 proiektu jaso dira.

